

Josemari Velez de Mendizabal

Bozkarioan

S

egurantza Sozialari hogeita heme-
retzi urte luzeko kotizazioa egin
ondoren, aurre jubilaziora igaro-
tzea erabaki dut. Hamalau mila eta
laurehun egunetako kuota ordain-
du ondoren, osoko jubilazioaren artean
nago aurtengo apirilaren 6tik. Eta data
horretatik iraultza txiki bat bizitzen ari da
nire izpiritua, egoera berrira egokitzea
nekeza gertatuko balitzaio bezala.

Moisesen legearen arabera, berrogeita
bederatzi lan urteren ondoren nork esku-
bide sakratuari hel ziezaiokeen, hots, gra-
ziazko berrogeita hamargarren urtea kol-
perik eman gabe bizi ahal izatekoa. Horri
jubileuko urtea esaten bide zitzaion, eta
esplotatzaile eta satrapei betiko bizkarra
emanda, saridunak eskubidea zuen, aurre-
ko garaietan bere burua eta sendiarena
aurrera ateratzeko saldu behar izan zituen
lurrak berreskuratzeko. Modu horretan,
zorioneko hiritarrari bermatzen
zitzaion bere askatasuna
eta aurrerantzean biziko
zituen urteak, bederen, zeha-
roko pobrezian ez ematea.

Moisesi jaramonik egin
gabe, lurtarragoa den Segur-
antza Sozialari nire eskubi-
dea aldarrikatu nion, eta jubi-
leuko urtera ez baina jubilura
–bozkarioa– eman dut jau-
zia, jarraitasunik gabeko ari-
ketan. Eta hementxe nauka-
zue, bizimodu berrian
bete-bete, nahiz eta –dio-
dan bezala– gogoa eta gorpu-
tza oraindik erdi galduta
dabilzkidan. Ohituko al dira?
Horren esperoan nago.

Oraindik atzo izan balitz bezala gogo-
ratzen dut nire lehen lan eguna. Arrasate-
ko Polmetasa lantegian zen eta –ikasle
denboretako 8-14 ordutegiko ihardunak
gogoratuz, nonbait– bazkal ostean lanle-
kura itzuli nintzenez nire buruan “baina
arratsalde ere bai?” galdera zen nagusi,
hura gehiegi zuela pentsatu izan bailuen.
Bai, urtarril 13 urrun hartatik goiz, arrat-
salde... eta gau askotako nekeak pilatu
ditut, judutar zibilizazioan bibliar zigor



DANI BLANCO

gisa saldu zitzaigun bide malkartsuan. Eta
garbi utzi nahi dut, kontzientzia osoz
adierazita ere, niretzat lana ez dela mada-
rikazio bat gertatu, alderantziz baizik.
Argi daukat hori, ez bainintzen, adibidez,
osterantzean izkiriartzen ari naizen lerro
hauek betetzen egongo.

Baina badakit nirekin bat etorriko ez
diren pertsona asko eta asko aurkituko
ditugula hor eta hemen, lanaren etekin
kolektiboaz konbentzitzeko erabil neza-
keen nire balizko diskurtso morala erre-
fusatuko dutenak, lanaren beraren bal-
dintza errealek –hein handi batean–
pertsona merkantzia hutsa bilakatu bai-
tute. *Homo faber* deritzanari ahaztu egiten
zaio maiz, gainerako nolakotasun guztien
gaintik, gizakiak gizateriaren duintasu-
naren aldeko apustu jarraikian duela
erronka nagusia, baita lanean ere. Eta
horren ezean, esplotazioa, injustizia,

gizakien arteko desberdinta-
sunak... horiek bai izango
dira madarikazio itzela, baina
ez Bibliakoa soilik baizik eta
–barkaezinena– eguneroko
bere ibilbidean gu *Homo
sapiens* deitutakook idazten
ari garen liburu madul
bezaín inkongruentekoa.

Asmoa daukat lanaren ibil-
bidetik segitzeko, oraingo
aldian Segurantza Sozialaren
laguntza pittin batekin. Ira-
kurgai sakratuak baztertu
gabe, hezur eta haragizkoei
lehentasuna eskaintzen
jarraituko dut, ez baita ezer
sakratuagorik ongizate kon-

partiturako –bozkarioa– gizakiaren
eskubidea baino. Gure bitartekoein era-
ki dugun gizarte ez orekatu honetan
hamaika injustizia antzeman daitezke
maila guztietan, eta –moralki bederen–
horien konponbidean iharduteko kon-
promisoari muzin ez egitera gaude kon-
denatuta. Konbentzitura nago lana,
berez, ez dela zigorra. Ez naiz atrebitzen
gauza bera esatera, gizon-emakumeok
lanaren fruituari eman ohi diogun ondo-
rioaz. ■

Gure bitartekoein eraiki dugun gizarte ez
orekatu honetan hamaika injustizia
antzeman daitezke maila guztietan, eta
–moralki bederen– horien konponbidean
iharduteko konpromisoari muzin ez egitera
gaude kondenatuta. Konbentzitura nago
lana, berez, ez dela zigorra